

PO8 - Elhuyar Zientzia Azoka

Kurtsoa/Maila

**1. DBH, 2. DBH, 3. DBH, 4. DBH,
1. Batxilergoa, 2. Batxilergoa**

Datak

2024 urria - ekaina 2025

Ikaskuntza-arloak

Biologia
Digitalizazioa
Ekonomia
Fisika
Geologia
Kimika
Kultura Zientifikoa
Marrazketa Teknikoa
Matematika
**Plastika eta ikus-entzunezko
hezkuntza**
Teknologia

Hizkuntza

Euskara

Irismen geografikoa

Araba/Álava, Bizkaia, Gipuzkoa

Erakunde sustatzailea

Elhuyar Fundazioa

Baliabide materialak eta ekonomikoak

Ikusi fitxaren amaiera

Elhuyar Zientzia Azoka STEAM proiektuen azoka bat da, Euskal Herriko 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzat. STEAM esperientzien dibulgazioa sustatzen du, eta zientziarekin eta teknologiarekin lotutako mugikortasunerako aukerak eskaintzen ditu. Ikasturtean zehar azokak egiten dira hainbat lurraldetan, eta azken ferian ikasturte amaieran egiten da Bilbon. Azken azoka horretan, parte hartzen duen talde bakoitzak STEAM proiektuen berri emango du bere standetan. Proiektu horiek ikasturtean zehar landu ditu ikastetxean, STEM profesionalen laguntzaren (aukerakoa). Proiektuak herritarrei eta ebaluazio batzorde bati aurkeztuko zaizkie; batzorde horrek proiektuak baloratu eta lan irabazleei sari batzuk emango dizkie. Sariak honako hauek dira: Estatuko eta nazioarteko azoketara joatea eta hurrengo ikasturtean ikerketa-zentroetan egotea.

STEM Deskribatzaileak

STEM 1

STEM 2

STEM 3

STEM 4

STEM 5

STEM 6

Garapena

Hasierako fasea. Urria-azaroa.

Elhuyar Zientzia Azokan izena ematea: parte hartzen duten ikastetxeek online inprimaki baten bidez eman beharko dute izena.

Irakasleentzako prestakuntza eta inspirazioa: online saio irekia egingo da, irakasleei STEAM proiektuak garatzeko praktika onak eta baliabideak aurkezteko.

STEM profesional boluntarioentzako prestakuntza: online prestakuntza eskaintzen zaie izena ematen duten STEM profesionaleri, ikasleei laguntzako. STEAM hezkuntzaren esparrua eta gazteei laguntzeko gomendioak aurkeztu dira.

STEM profesionalen laguntza eskaera: ikasturte hasieratik ferian izena ematen duten ikastetxeek STEM profesionalen aholkularitza izan dezakete STEAM proiektuak garatzeko.

Garapen fasea. Urria-martxo.

STEM proiektuak garatea: lau parte-hartzaile arteko taldeetan antolatuta, gazteek STEAM proiektuak garatzen dituzte ikastetxean.

Ikerketa edo erronka teknologiko bati erantzuten dioten ikerketa proiektuak izango dira. Proiektua STEAMen edozein eremurekin lotuta egon daiteke. Proiektuetan lan egitea

STEAM Printzipioak

P1

P2

P4

P5

sustatzen da, zeharkako gaitasunak garatuz, zientzia eta teknologiez gain.

STEMeko profesionalen aholkularitza izanez gero, irakasleak boluntarioarekin harremanetan jarri eta adostu beharko ditu lankidetzarako bideak. Horrela, ikasleek aukera izango dute egiten ari diren proiektuarekin laguntza jasotzeko eta lanbide mundua ezagutzeko, genero ikuspegitik.

Azken fasea. Talde bakoitzak goiz bakarra izango du proiektua aurkezteko.

Gipuzkoan, Nafarroan eta Lapurdin azokak egitea: lurralde bakoitzeko feriak egingo dira eta ikasleek beren proiektua aurkeztuko diete herritarrei. Deialdia iritsitakoan egingo da.

Elhuyar Zientzia Azoka Bilboko Arenalean: lurralde guztietako taldeek har dezakete parte. Ikasleek STEAM proiektuak aurkeztuko dizkiete herritarrei eta ebaluazio batzorde bati. Batzordeak emango dizkie sariak irabazleei.

Standetako ebaluazioaren barruan sartzen dira proiektuaren kalitatea, ahozko aurkezpena, originaltasuna, jasangarritasuna eta proiektuaren genero ikuspegia.

Garrantzitsua: Bilboko ferian parte hartzeko aldeztu aurretik parte hartzeko eskaera bete behar da.

P08 - Elhuyar Zientzia Azoka

Curriculumarekin lotura

Parte hartzen duen ikastetxe bakoitzak diseinatzeko duen STEAM proiektuak zehaztuko du programa honen curriculumaren lotura.

Helburuak

- Gazteei zientziarekin eta teknologiarekin lotutako mugikortasun-esperientziak eta aukerak eskaintzea.
- Aukera-berdintasuna bermatzea.
- Zientzia eta teknologia sistemako eragile aktiboak inplikatzeko.
- Euskara sustatzea zientziaren eta teknologiaren arloan eta STEAM proiektuen garapenean.

Baliabideak

Baliabide didaktikoak:

- STEAM Gidak: <https://zientzia.eus/gaiak/STEAM-hezkuntza/liburuxkak/>
- Aurreko urteetan garatutako STEAM proiektuak: <https://zientzia-azoka.elhuyar.eus/eu/zientzia-azoka-online/gazteen-proiektuak>

Baliabide materialak:

- Recursos necesarios para presentar los Proyectos STEAM en los stands.

Baliabide ekonomikoak:

- Stand-ean behar diren materialen gastuak; Elhuyar Zientzia Azokara joateko joan-etorrien gastuak.

Informazio gehiago:

<https://zientzia-azoka.elhuyar.eus/eu>